



ARAUTEGIA 2018

FUTBOL 11 (Errendimendurako ibilbidea)

Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak, Euskadiko Futboleko Federazioarekin lankidetzan, EUSKADIKO X ESKOLARTEKO KIROI JOKOAK ERRENDIMENDUARI EKITEKO IBILBIDEAN antolatuko ditu, Infantil lehen urteko txapelketa Zubietan (Gipuzkoa) eta Infantil bigarren mailako txapelketa Lezaman (Bizkaia) 2018ko ekainaren 2 eta 3an. Hona hemen arautegia:

1. JOKATZEKO MODUA

Hiru bat sistemaren bidez bi jardunalditan jokatu da.

Mailak:

Infantilak: 2004an jaioetako mutilak bigarren urtekoak eta 2005ean jaioetakoak lehen urtekoak.

2. EKIPOEN OSAKETA

Lurralde bakoitzeko hiru talde parte hartuko dute beraien lurraldeetako txapelketen lehen irabazleak.

Jokalari guztiak eskolarteko lizentzia aurkeztu beharko dute txapelketan parte hartzeko, ikasturtean zehar talde berean jokatu behar izan dute.

Taldeak gehienez 25 jokalariz osatuta izando dira, hauez gain . delegatu bat eta entrenatzailea izan daitezke.

Aktan gehienez 22 eta 13 gutxienez jokalarik agertuko dira.

Partida bakoitzean, aktan izena emandako partaide guztiak zati bat gutxienez jokatu beharko dute, salbuespenak hauek izanik:



- Lesionatutako jokalaria. Jokalari batek asistentzia jasotzen badu ordezkatzeko beharrik ez dago, baldin jokia bi minutu baino gehiagotan gelditzen ez bada.
- Kanporatutako jokalaria

Behin aipatutako aldaketak egin eta gero, aldaketak askeak izango dira.

Ekipo bakoitzak bi kamiseta joko edukitzea beharrezkoa da, bateratasunik gerta ez dadin.

3. PARTIDUAREN IRAUPENA

Partidek hogeita hamabost minutuko iraupenak izando dute. 17,5eko bi zatitan banatuta, bost minutuko atsedenaldira batekin.

4. BERDINKETEN AURREAN

Penalti-puntutik hiru jaurtiketako txanda bat egingo du talde bakoitzak, penaltia botatzeko bi taldeetako jokalaria txandakatuz. Hiru jaurtiketak egin ostean berdinketa badago, penaltiak jaurtitzen jarraituko dute talde batek hutsegina eta besteak sartu arte.

Jardunaldi bakoitzean lortutako emaitzak egun bereko sailkapena sortzeko baliagarriak izango dira, inoiz ez dira jardunaldi biko emaitzak batuko sailkapen orokorra osatzeko.

Jardunaldiko sailkapena zehazteko irizpide hauek jarraituko dira:

Bi talderen arteko berdinketa ematen denean:

4.1.- Jokatutako bi taldeen arteko emaitzen arabera

4.2.- Berdindutako taldeen arteko penalti jaurtiketen emaitzaren arabera

Hiru talderen arteko berdinketa ematen denean:

4.3.- Jardunaldi berean, egindako eta jasotako gol kopuru handiaren diferentziaz.

4.4.- Jardunaldi berean, sartutako gol gehien sartutako kopuruaren arabera.



- 4.5.- Jardunaldi berean, penaltietako gol ezberdintasunagatik.
- 4.6.- Jardunaldi berean, jaurtitako penalti kopuru gutxienagatik.
- 4.7.- Zozketaren bidez.

5. BALOIA

Baloia 5. motakoa izango da. Berotzeko balioak taldeak ekarri beharko dituzte.

6. FUTBOL ZELAIA

Zelai jokoak programatan azaldutakoaren arabera izango dira.

7. ZIGORRAK

Txartel horien metaketaren ondorioz egozpenaren aurrean:

- Egotzitako jokalaria ezin izango du bere taldearekin lehiatu, honek jokatzen duen hurrengo partidan.
- Bere taldea jokalaria bat gutxiagorekin geratuko da partida irauten duen bitartean.
- Egotzitako jokalaria ordezkatu ahal izango dute taldeak jokatzen duen hurrengo partidan.

Txartel gorri zuzena ematen denean:

- Egotzitako jokalaria ezin izango du bere taldearekin lehiatu, txapelketa guztian zehar.
- Bere taldea jokalaria bat gutxiagorekin geratuko da eguneko jardunaldia irauten duen bitartean.
- Egotzitako jokalaria ordezkatu ahal izango da, taldeak jokatzen duen hurrengo eguneko partidatarako



8. SARIAK

Ondorengo sariak emango dira:

Garaikur bana lehen, bigarren eta hirugarren sailkatutako ekipoei.

8. EZBEHARREN AURREAN.

Lesio edo ezbeharrik sortu ezkerro nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.

9. AZKEN OHARRA

Arautegi honetan azaltzen ez diren kontu guztietarako, ondorengo testuak hartuko dira kontuan:

- a. 14/ 1998 LEGEA, Ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.
- b. 125/2008 DEKRETUA, Uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.
- c. 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketen diziiplina-araubideari buruzkoa
- d. Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailburuaren 2018ko urtarrilaren 10eko AGINDUA, 2018ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXVII. edizioaren deialdia egiteko dena
- e. Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol Zuzendariak, 2018ko urtarrilaren 16ko EBAZPENA, 2018ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXVII. edizioaren epaile bakarra izendatzen dena.
- f) Futboleko Euskadiko Federazioaren araudiak dioena.

Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezkerro, jatorrizko hizkuntza lehentasuna izango du.